

IKUSKARITZA ZERBITZUAREN EZARPENA ETA ABIAN JARTZEA

- I.- Aurrekariak.
- II.- Arautegi aplikagarria.
- III.- Ikuskaritza Zerbitzua
 - Egoitza
 - Eginkizunak
 - Laguntzeko betebeharra

I.- AURREKARIAK

UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzua 1999an sortu zen. Ez zegoen aurrekaririk irakasle eta ikertzaileen irakaskuntzaren jarraipena egiteko eta kontrolatzeko, Irakasle Taldeko Zuzendaritzak kudeatzen zuen irakasleen irakaskuntza betekizunaren esleipenari lotutakoa salbu.

Gero eta titulu berri gehiago sartzeak agerian utzi zituen gure unibertsitateko kudeaketa-metodoek zituzten egiturazko gabeziak (batez ere, irakasle eta ikertzaileen kudeaketa-esferan) eta metodo horien ordez, metodo gardenago eta eraginkorragoak ezartzeko beharra; hain zuzen ere, ikasketa plan berrien malgutasunarekin eta konplexutasunarekin zeharo bateragarriak izango ziren metodoak.

1997/1998 ikasturtean idatzi zen irakaskuntza-eskaintza eta irakasleen irakaskuntza betekizuna ezartzeko Prozedura Bateratuaren lehenengo edizioa, honako bi helburu hauekin: garaiz jakitea unibertsitateak hurrengo ikasturtean eskainiko duen irakaskuntza eskaintza zehatza egin eta argitaratu dela, eta aurrerapen berarekin ezagutzea eskaintza horri erantzuteko behar diren irakaskuntza-baliabideak zein puntutaraino erabiliko diren. Besteak beste, Irakasle Taldearen Zuzendaritzak prozedura hori ezartzeak eta horri jarraipena egiteko beharrak eragin zuen Ikuskaritza Zerbitzuak sortzea.

Aipatutako arrazoiez gain, Zerbitzuen Ikuskaritza sortzeko funtsezko arrazoi bat Herri Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) UPV/EHUri buruzko auditorietan behin eta berriz egindako gomendioak dira, unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen lan-jardueraren kontrolik eza zela eta. Adibidez, hona hemen zenbait erreferentzia:

1998-1999-2000 urteak

"UPV/EHUk ez du ordutegia kontrolatzeko prozedurarik, irakasle bakoitzak benetan lan egindako orduak zenbat diren jakin ahal izateko. Irakasleen banakako lan-jarduera zehazki adieraziko duen prozedura prestatzea gomendatzen dugu, irakasleek benetan egindako orduak ezagutu ahal izateko, eta ordutegia modu egokian kontrolatu eta haren jarraipena egin ahal izateko; horretarako, Ikuskaritza Zerbitzua sustatuko da".

2001 urtea

"UPV/EHUko Langileen Sailak ez du irakasleek irakaskuntza eta ikerketarako erabiltzen dituzten orduak benetan zenbat diren ezagutzeko prozedurarik. 2002. urtean zehar, irakasleen eta haien lanaldiaren beharrak ezagutzeko prozedurak lantzen hasi da unibertsitatea, irakasleen Ikuskaritza Zerbitzuarekin.

Gure ustez lehenetsuna du irakasleen ikuskaritza-lana areagotzeak, haien benetako lanaldia frogatzeko, bai irakaskuntza-jarduerarena bai ikertzailearena, eta behar akademikoak egiaztatzeak. Neurri horiek langile-talde ezin hobea lortzen lagunduko dute. Eta hori beharrezkoa da langileen gastua egiazko beharrei egokitze aldera".

2002. urtetik aurrera, HKEEK onartu zuen UPV/EHUK, Ikuskaritza Zerbitzua sortu eta martxan jarri ondoren, irakasleen irakaskuntza lanaldia ezagutzen eta kontrolatzen zuela, baina aitortu zuen UPV/EHUK ez zekiela irakasle eta ikertzaileek zenbat denbora ematen zuten ikerketan eta lan jardunaldian.

Ikuskaritza Zerbitzua 1999an sortu zen ofizialki, baina 2001. urtera arte ez zen benetan unibertsitateko komunitaterako zerbitzu gisa martxan jarri (urte horretan izendatu baitziren Irakasleen zuzendaria eta zerbitzuko bi ikuskatzaileak).

II.- EZARTZERAKOAN APLIKA LITEKEEN ARAUTEGIA.-

1.- Apirileko 898/85 ED, unibertsitateko irakasleen araubide juridikoari buruzkoa

(146. EBO, 1985eko ekainekoa; okerren zuzenketa 170. EBO, uztailaren 17an)
LEHENENGO TITULUKO 16., 17., 18. eta 19. artikulua Unibertsitateko Ikuskaritza Zerbitzuak eratzeari buruzkoak dira.

"...Unibertsitate bakoitzean Ikuskaritza Zerbitzua sortuko da; betekizunak honakoak izango dira: diziplina espedienteen instrukzioan parte hartzea, eta akademi diziplinaren jarraipena eta kontrola egitea. Ikuskaritza Zerbitzuko kideak errektoreak izendatuko ditu, unibertsitateko Estatutuei jarraituz..."

2.- Errektorearen 1999ko otsailaren 4ko erabakia, Zerbitzuen Ikuskaritza eratzen duena, 1999ko otsailaren 3an Gobernu Kontseiluak UPV/EHUKo Ikuskaritza Zerbitzuaren egitura eta funtzioei buruzko Arautegia onartu ondoren.

3.- Gobernu Batzarraren 2001eko otsailaren 22ko akordioa, Irakasleen zuzendariaren kargu akademikoa sortzeari buruzkoa; kargu horrek Ikuskaritza Zerbitzuaren zuzendaritza hartuko du eta Irakasleen Errektoreordetzarekin lotuko da.

4.- Irakasleen Errektoreordetzak 2001eko abenduaren 3an idatzitako zirkularra, ikuskaritza zerbitzuko kideek jarraitu beharreko argibideak ematen dituena, UPV/EHUKo ikuskaritza zerbitzuko gaitasunak eta funtzioak (aurrez aipatutako arautegian agertzen dira) garatzeko eta betetzeko.

5.- 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

IV. tituluaren I. kapituluaren

63. artikulua.- Ikuskatzaile funtzioa.

6.- UPV/EHUKo estatutuak (2003ko maiatzaren 21eko Unibertsitate Klaustroak onartuak)

252. artikulua.- 1. puntuaren esan denez, errektoreak honako eskumen hau izango du, besteak beste:

l) Zerbitzuen ikuskaritza eratu eta antolatzea.

7.- Arlo horretako testuen sakabanaketa zela eta, horiek guztiak testu bakar batean bateratzeko beharra zegoen, bai eta horietan ezarritakoa eguneratzekoa ere. Horrela, **UPV/EHUko Ikuskaritzako Arautegi** berria sortu zen, **2008ko maiatzaren 12an**.

III.- IKUSKARITZA ZERBITZUA

UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzuak irakasleek irakats-betebeharrak betetzen dituzten zaindu eta egiaztatzen du eta, era berean, laguntza ematen die ikasturtero irakats-eskaintza bideratu eta onartzen duten atal eta organoei.

Ikuskaritza Zerbitzua irakasleen alorreko eskumenak dauzkan errektoreordetzari atxikita dago, baina bizitza akademikoarekin zerikusia daukaten errektoreordetza guztiekin koordinatuta burutuko du bere lana.

UPV/EHUko Ikuskaritza Zerbitzuan Irakasleen zuzendaria egongo da, errektoreak jardunean dauden irakasle eta ikertzaileen artetik izendatuta. Ikuskariak ere egongo dira, eta horien lanpostuak UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako langileen lanpostuen zerrendan azalduko dira.

Egoitza

Ikuskaritzak modu egokian funtziona dezan, unibertsitateko guneetan berariazko egoitza izango du, jarduera espezifikoak egiteko behar dituzten bitartekoekin; gaur egun, Errektoregoko eraikinean dago.

Eginkizunak

Ikuskaritza Zerbitzuak bere gain hartzen ditu UPV/EHUk 2008ko maiatzaren 12an web orri honetan argitaratutako Ikuskaritzako Arautegian agertzen diren funtzio guztiak.

Azpimarratu behar da Ikuskaritza Zerbitzuaren egiteko bakarra ez dela unibertsitateko irakasleek garatuko dituzten funtzioak kontrolatu eta ikuskatzea. Zeregin gehiago ere baditu, hala nola irakasleei laguntza eta informazioa ematea eta zerbitzuaren esku-hartzea eskatzen duten UPV/EHUko hainbat pertsonari laguntzea, dekanok eta ikastegietako zuzendariei, sailletako zuzendariei, ikasleei eta errektoreordeei, bestek beste.

Laguntzeko betebeharra

Arautegi horren 4.4 artikuluko aurreikuspen espezifikoak kaltetu gabe, Ikuskaritza Zerbitzuari bere funtzioak garatzen lagundu eta harekin elkarlanean aritu beharko dute honako hauek: edozein maila eta kargu duten, eta unibertsitatean zeinahi ekintza eta eskumen arlo duten agintari akademiko, funtzionario eta gainerako langileek eta ikasle kontseiluek.

Laguntzarik eman ezean, Ikuskaritza Zerbitzuak jakinaren gainean jarriko du errektorea.

Edonola ere, laguntzeko betebeharra dela eta, Ikuskaritza Zerbitzukoek ahalegina egingo dute ikuskatutako zerbitzuen funtzionamendua ahalik eta gutxien eragozteko.